

## JESUS ETA ODOL-JARIODUNA

1

Andra baten kontua  
esatera noa:  
Amabi urte luzez  
gatx txar batek joa.  
Medikurik mediku  
ibilitakoa,  
etxe ta auzokoak  
gastatutakoa;  
eta ezin osatu  
odol-jarioa.

3

“Jakín nahi neuke zeinek  
nauan Ni ikutu”.  
- “Ez al zaitue, Jauna  
milakak estutu?”  
Graziz osatu dana  
nahi dau ezagutu.  
Horra bere oinetan  
ahuspez eta mutu;  
osatu dana ez da  
eginaz damutu.

5

Gauza bat da fedea  
eta ez epela,  
beste bat, ikutzea  
soineko mendela.  
Geuretzat dago Jesus  
mediku bezela,  
gaixorik dagoana  
osatu daitela...  
Zertarako mundura  
jatsi zan bestela?

2

Ona nun entzun dauan  
Jesusen izena,  
eta Beragan biztu  
jako sinismena:  
“Ikutuko baneutsa  
soineko barrena,  
osatuko nintzake  
ahal dan azkarrena,  
Jesusek berez dauka  
behar dan almena”.

4

“Jagi ta zoaz, bakez  
bizitzen jarraitu,  
zeure sinismen hutsak  
gaur osatu zaitu.  
Gorputza osatu ta  
gogoa alaitu,  
Jaungoikoa goraltzen  
ezin da gogaitu:  
“Jainkoak Jesusengan  
bedeinkatu gaitu”.

6

Entzun eiguzu, Jesus,  
eskari apala:  
Badakizu guztiok  
gaixoak garala.  
Prest zagoz emoteko  
guk eskatu-ahala;  
fede sendoa behar,  
hau da printzipala,  
gehitu gure fedea,  
Jaun bihotz-zabala!